



10



10

“Denok zerbait eman eta egin dezakegu ondoko pertsonaren alde”

Urteak daramatza Caritaseko boluntario lanetan. Pentsatzen jarri, eta “hogeita hamahiru bat direla esango nuke”, dio Juan Luis Muruak (Añorga Txiki, Donostia, 1957). ‘Hau guztia amaitzean nolakoak izango gara?’ galderari, pentsakor erantzuten dio. “Zalantza asko dauzkat. Ezberdina izango da ‘barrutik’ nolabait lan egin duenarentzat. Aldaketak, gure barru-barrutik etorri behar dute”.

1. LAGUN HURKOA.

Edozein pertsona izan daiteke. Hau da, adiskide bat, batez ere egoera erraz batean ez dagoena, eta besteen laguntza behar duena bere bizitza duintasunez bizi ahal izateko. Niretzat, galdera bat ere bada. Zer egin behar dut egoera horren aurrean?



2. GIZARTE BAZTERKERIA.

Edozein pertsonari bizitzea tokatu liezaiokeen egoera batere ez erraza. Gizarte harremanek, eta gizarteak ematen dizkiguten eskubideetatik nolabait kanpo, baztertua sentitzea. Ezin dut inolaz ere ulertu hori, injustizia handia baita. Inork ez du hori merezi. Elkarte sentitzea, besteekin partaide izatea, pertsona guztientzat da oso garrantzitsua.

3.KORONABIRUSA.

Uff! Gaixotasun bat baina edozein erasotu du, eta horrek egin du berezi. Baita eragin dituen heriotzak ere. Bere beste berezitasuna, Lehen Munduari, ustezko mundu aberatsa, kanporatzea ere asko kostatzen ari zaiola da. Eta bestalde, gure ekonomian sortu dezakeen arazoa ikusteke dago...

4. HERRITARRA.

Hemen bizi garen guztiok; berdin dio jaioterria. Garrantzitsuena da denok duintasun berbera merezi dugula. Erabakiak hartzeko eta denon artean gizartea eraikitzeko, aukera berberak izan behar ditugu.

5. EUSKAL KANTU BATEK HONELA DIO:

“Handitzen zarenean ikusiko duzu, isilik egoteak zenbat balio dun...”

Alde batetik, gizartearen zati handi bat horrela bizi da. Ez du inork enbarazu egiterik nahi, hau da, gure erosotasuna arriskuan jartzea. Orduan, batzuk, nahiago dute ‘kanpoan’ geratu, eta euren lasaitasuna ez aldatu. Mezu hori indarrean dago gizartean. Ez dugu agian hitzekin esango, ez gara hainbeste esatera ausartzen, baina ekintzekin, gure lege eta jokabideekin, tamalez hori esaten dugu askotan.

6. KALEA / KALE GORRIA. Sinonimoak al dira?

Une honetan, kalea, amesten dugun espazioa da. Etxetik irten nahi dugu askatasunez kaleetatik barrena ibiltzeko. Irteteko askatasuna izatea, ederra da gero!

Kale gorria? Guztiz kontrakoa. Beti kalean halabeharrez dagoena. Ez du etxerik. Kalea bilgunea da, bai, baina babesik ez duenarentzat gune arrunt ezberdina da: bere ‘etxe’ bakarra. Eta horrez gain, ia ikusezinak dira jende askorentzat. Badira kalean ez, baina adibidez gela batean sartuta ‘bizi’ direnak ere; jende piloa gela berean. Hori ere kalean bizitzearen antzekoa izan daiteke.



7. ELKARTASUNA.

Orain bereziki ikusten ari gara, elkartasuna dela denok behar duguna. Elkartasunik gabe ez gara ezer. Birus honek bizitzari aurre egiteko bata bestearen beharra dugula erakutsi digu. Denok dugu zerbait ematekoa.

8. BOSTEKOA / BESARKADA.

Hori da partekatzea gustatuko litzaigukeena! Horien beharrean gaude. Une honetan samurtasun, begirada, irribarre... batek ordezkatzan ditu bostekoa eta besarkada. Gure jokabideetan, eskua beti luzatu behar dugu, eta besarkada, beti eman.

9. ITXAROPENA.

Zentzu askotan bizi dugu. Batzuentzat itxaropena lehengo bizimodura itzultzea da. Itxaropena, espero duguna, nahi duguna ere bada. Beste batzuk ez dute itxaropen handirik; lehen ez ziren ondo bizi, eta aurrerantzean auskalo. Benetako itxaropena, gizarte ezberdin bat izango litzateke. Denok, onartuak, eta berdintasunean biziko garen gizartea. Badakit amets bat dela baina horretarako bidean jartzea litzateke benetan itxaropenez bizitzea. Hau da, asko edo gutxi, baina bakoitzak ahal duguna egin dezagun amets horren bidean.

10. BOLUNTARIOA.

Ikusten dituen beharren aurrean zerbait egitera deitua sentitzen den pertsona. Denbora badugu, gai bagara... ezin dugu geldirik egon, batez ere, egoerak eta besteen beharrak ikusita. Denok zerbait egin dezakegu ondoko pertsonaren alde.



10

“Gizarte desberdin eta hobe eraikiko dugun itxaropena dut”

Paseatzera ateratzen da egunero. “Konfinaturik hainbeste egun igaro ondoren, asko eskertzen da”, dio Lourdes Mujikak (Bergara, 1950). Boluntario lanetan duela bederatzi urte hasi zen. “Erretiratu ondoren, eta etxean egoteko pertsona ez naizenez, zerbait baliagarria egin nahi izan nuen; Caritasera hurbildu nintzen, laguntzen hasi, eta hor jarraitzen dut”.

1. LAGUN HURKOA.

Pertsona berezi eta garrantzitsua. Behar duenean entzutea eta laguntzea, eta beragandik hurbil egotea daraman zama arindu nahi duenean. Laguntza eskatzen duen pertsona entzun eta lasaitzen dut. Nire boluntariotzan, mota horretako egoera asko gertatu zaizkit, eta ahal dudan neurrian, hurbiltasunetik, laguntzen saiatzen naiz.



2. GIZARTE BAZTERKERIA.

Hitz gogorra da. Badira pertsona egoera hori jasaten ari direnak. Batzuek ez dakite nora jo, orain arte ez baitute behar hori izan. Arnasarik gabe sentitzen dira, itota... Askok gogoratzen naiz beraien etxeetan bakarrik dauden pertsonen ere; alargunak... Hori ere gizarte-bazterketa da. Ea hurbiletik asmatzen dugun euren bakardadeari aurre egiten haiengana iristea.

3. KORONABIRUSA.

Ez diot kutsatzeari beldurrik, baina bai errespetua. Ezarritako jarraibideak betez gero, egoera honetatik irtengo gara. Nire lana egiten dudanean, maskarila eta eskularruak erabiltzen ditut beti. Jarrai dezagun bide horretatik -higienea, pertsonen arteko distantzia...-, eta aurrera egingo dugu. Zaila izan da nire ilobak ezin ikus izana, baina teknologiari esker konpondu dut nolabait.

4. HERRITARRA.

Nire inguruan bizi diren pertsonak, nonahi daudela ere. Espazio publiko eta pribatua partekatzen dut. Orain gogoratzen naiz hemen jaio ziren eta emigratu behar izan zuten pertsonenez. Harrera egin zitzaien. Berdin egin dezagun guk ere

5. EUSKAL KANTU BATEK HONELA DIO:

“Handitzen zarenean ikusiko duzu, isilik egoteak zenbat balio dun...”.

Injustizien aurrean ez naiz geldirik geratzen. Egoera zailetan, ados ez nagoen zerbait ikusten badut, inoiz ez naiz isildu. Baina aurrean dudan pertsonaren iritziak argudio sendoagoak baditu, ez dut eragozpenik arrazoia emateko. Ez naiz ixten, ez bainaiz egia absolutuaren jabe. Iritziak batuz, aberastu ditzagun.

6. KALEA / KALE GORRIA. Sinonimoak al dira?

Kalean egotea askatasuna da. Bakoitzak erabakitzen du noiz sartu eta noiz atera etxetik. Nirea, harreman boluntariotza da; kalen atzera eta aurrera asko ibiltzen naiz, eta, lana egin ondoren, gustura itzultzen naiz etxera. Koadrilarekin, bizilagunekin... bizitzeko topagunea da kalea. Orain, lagunekin kalean topatu beharrean whatssapez aritzen gara. Orain, are gehiago, erabat desberdina den beste errealitate bat sentitzen dut: kaleko pertsonak jasaten dutena, baliabiderik gabe...



7. ELKARTASUNA.

Laguntzea. Herrian badira pertsonak beste batzuei laguntzen ari direnak, adibidez, adinagatik etxetik atera ezin daitezkeenak, eta erosketak egin ezin dituztenak. Jendearengana hurbiltzeko modu bat da. Jarrera horrek asko pozten nau. Herritarrak erantzuten ari dira.

8. BOSTEKOA / BESARKADA.

Asko botatzen ditut faltan! Batez ere, nire ilobak besarkatzea. Ez naiz oso musu-emailea, baina telefonoz edo whatssap bidez hainbeste hitz egin ondoren, maitasunezko edozein keinu eskertzen dut. Caritasetik artatzen ditugun pertsonekin hitz egitea, eta eurak irribarretsu ikustea, oso sentrazio atsegina da.

9. ITXAROPENA.

Jasaten ari garen birusak erakusten ari zaigu 'errege-erreginak' ginela uste genuela, eta ez garela. Ezta antzik ere! Ez gara garaiezinak, eta gaixotasun bat gure lekuan jartzen ari zaigu. Erne jarraitu behar dugu; beldurra librea da, baina ez gaitu baldintzatu behar. Beraz, jasan dugun guztiaren ondoren, gizarte desberdin eta hobe eraikiko dugun itxaropena dut.

10. BOLUNTARIOA.

44 urtez lan egin dut enpresa batean, eta ez nintzen erretiratu nire etxean eguneko 24 orduetan sartuta egoteko. Etxea, niretzat, bizitzeko lekua da, ez naiz etxerako bizi. Boluntario izateak ekarpen handia egiten dit, eta asko betetzen nau horrek.

